

UDALBATZARRA/PLENO MUNICIPAL N° 12/2014

L A S A R T E - O R I A K O
UDALBATZARRAK 2014ko URRIAREN
14 e a n E G I N D A K O O H I K O
BATZARRALDIAREN AKTA.

ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA
CELEBRADA POR EL PLENO
MUNICIPAL DEL AYUNTAMIENTO DE
LASARTE-ORIA EL DÍA 14 DE
OCTUBRE DE 2014.

ETORRITAKOAK:

ASISTENTES:

ALKATE LEHENDAKARIA: Pablo Barrio Ramirez jn. (BILDU)
ALCALDE-PRESIDENTE

ALKATEORDEAK: Nerea Sanchez Lopez and. (BILDU)
TENIENTES DE ALCALDE Gorka Lizarraga Erro jn. (BILDU)
Alaitz Mendizabal Urdapilleta and. (BILDU)
Tasio Arrizabalaga Azpirzo jn. (BILDU)

ZINEGOTZIAK: Jesús M^a Zaballos de Llanos jn. (PSE-EE-PSOE)
CONCEJALES Txus Alonso Ocáriz jn. (PSE-EE-PSOE)
Lourdes Acevedo Beldarrain and. (PSE-EE-PSOE)
Martín Moreno García jn. (PSE-EE-PSOE)
Estitxu Alkorta Barragán and. (EAJ-PNV)
Boris Nogales Benito jn. (EAJ-PNV)
Ana Isabel Prieto Narciso and. (LOHP-PCLO)
Juan José Castro Domínguez jn. (LOHP-PCLO)
Vanessa Vélez de Pablos and. (PP)

IDAZKARIA: Francisco Xabier A. Egea Jauregi jn.
SECRETARIO

EZ ETORRITAKOAK:

NO ASISTENTES:

ZINEGOTZIAK: Iñaki Múgica Flores jn. (PSE-EE-PSOE)
CONCEJALES Nerea Artamendi Erro and. (PSE-EE-PSOE)
Marisa Zubiri Bustillo and. (Concejales No adscritos)

KONTUHARTZAILEA: Ion Murua Guinea jn
INTERVENTOR

Lasarte-Oriako Udaletxeko Batzar-Aretoan, 2014ko URRIAREN 14ko 18:30 zirelarik, aldez aurretik horretarako deialdia eginda, Lasarte-Oriako Udalbatzar osoa bildu zen, Pablo Barrio Ramirez Alkate jaunaren lehendakaritzapean, gorago aipatzen diren alkateordeak eta zinegotziak bertan zirela, eta nik urgatzita, Francisco Xabier A. Egea Jauregi idazkari jaunak, geroago esango diren erabakiak hartzeko.

Udalbatzarra eratzeko “quórum” nahikoa badagoenez gero, Alkate jaunak eratua deklaratu du udalbatzarra, eta, haren aginduz, bilkurako gai-zerrendan sartutako gaiak tratatzeari ekiten zaio.

1.- 2014KO APIRILAREN 11 ETA 25EAN EGINDAKO BILKUREN AKTEN ONARPENA.

Bozkatzera jarrita 2014ko Apirilaren 11ko eta 25eko bilkurei dagokien aktak, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak **AHO BATEZ** onetsi ditu bildutako korporatiboek.

En la Sala de Plenos del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, siendo las 18:30 horas del día de OCTUBRE de 2014, previa citación al efecto, se reunió el Pleno Municipal del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Pablo Barrio Ramírez, con la asistencia de los Tenientes de Alcalde y Concejales que arriba se relacionan, y asistidos de mí, el Secretario D. Francisco Xabier A. Egea Jauregi, para tomar los acuerdos que luego se dirán.

Existiendo “quórum” suficiente para la constitución del Pleno, el Sr. Alcalde declara constituido el Pleno y de su orden se pasa a tratar sobre los asuntos incluidos en el Orden del Día.

1.- APROBACIÓN DE LAS ACTAS CORRESPONDIENTES A LAS SESIONES CELEBRADAS LOS DÍAS 11 Y 25 DE ABRIL DE 2014.

Sometidas a votación las actas de las sesiones celebradas el 11 y 25 de abril de 2014, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por **UNANIMIDAD APRUEBA** las mismas.

2.- 2014 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA: ZERBITZU SOZIALEN ARDURADUN LANPOSTUAREN DERRIGORTASUN-DATARIBURUZKO LEGEZKO ZUZENKETA, HIZKUNTZA POLITIKARRAKO SAILBURU ORDETZAK HELARAZITAKO TXOSTENA IKUSIRIK.

Pertsonaleko eta Barne Erregimeneko Batzorde Informatiboak, 2014ko urriaren 7an egindako bilkuran igorritako txostenaren berri ematen da.

Ikusita Euskal Autonomia Erkidegoko Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 22 eta 23 artikuluek xedatutakoaren ondorioz, "Zerbitzu Sozialen Arduradun" lanpostuaren hizkuntza eskakizuna aldatzerakoan (2014ko apirilaren 11n egindako udalbatzarrak hartutako erabakia) bere derrigortasun-data ere aldatu egin behar zen, beti ere dagokion plangintzaldiaren barruan jarriko delarik derrigortasun data.

Dagozkion izapideak jarraitu ondoren, aipatutako lanpostuaren derrigortasun-data berriarekin osatzen da.

Bozkatzera jarrita txostena, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamar botorekin (5 BILDU, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO, 1 PP) eta lau abstentziorekin (4 PSE-PSOE), honako akordio hau hartzen du:

2.- RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA EL AÑO 2014: SUBSANACIÓN LEGAL RELATIVA A LA FECHA DE PRECEPTIVIDAD DEL PUESTO DE RESPONSABLE DE LOS SERVICIOS SOCIALES, A LA VISTA DEL INFORME REMITIDO POR LA VICECONSEJERÍA DE POLÍTICA LINGÜÍSTICA.

Se da cuenta del dictamen emitido por la Comisión Informativa de Personal y Régimen Interior, en sesión celebrada el 7 de octubre de 2014.

Visto que de conformidad con lo dispuesto en los artículos 22 y 23 del Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, al modificarse el perfil lingüístico del puesto de "Responsable de los Servicios Sociales" (acuerdo que se adoptó en la sesión plenaria de 11 de abril de 2014) se debió haber modificado su fecha de preceptividad, que se fijará siempre dentro del período de planificación correspondiente.

Seguidos los trámites pertinentes, se subsana la nueva fecha de preceptividad del citado puesto.

Sometido a votación el dictamen el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con diez votos a favor (5 BILDU, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO, 1 PP) y cuatro abstenciones (4 PSE-PSOE), toma el siguiente acuerdo:

LEHENIK ETA BEHIN.- Onestea 2014. Urterako duen Lanpostuen Zerrendaren zuzenketa “Zerbitzu Sozialen Arduradun” lanpostuaren derrigortasun datari dagokiona, ondoren zehazten den moduan:

PRIMERO Y ÚNICO.- Aprobar la subsanación de la Relación de Puestos de Trabajo para el año 2014 con relación a la fecha de preceptividad del puesto de “Responsable de los Servicios Sociales”, quedando de la siguiente forma:

Lanpostuaren izendapena/ Denominación del Puesto de Trabajo	Dotazioen kopurua/ Número de Dotaciones	Hizkuntza-eskakizuna/ Perfil Lingüístico	Derrigortasun-data/ Fecha de Preceptividad
Zerbitzu Sozialen Arduraduna Responsable de los Servicios Sociales	1	4	2014/01/01

3.- BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA “KONSTITUZION-AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI” BURUZKO MOZIOA.

3.- MOCIÓN PRESENTADA POR BILDU RELATIVA A “LA SUSPENSIÓN DECRETADA POR EL TRIBUNAL CONSTITUCIONAL SOBRE LA CONSULTA CATALANA”

Alkate jaunak hartzen du hitza eta esaten du gai zerrendan jartzen duen bezala hasiera batean Bilduk aurkeztu behar zuen mozioa zela, baina gero PNV-rekin adosten dutela mozio transakzional hau aurkeztea.

Lizarraga jaunak hartzen du hitza jarraian transkribatzen den mozioa irakurtzeko:

EAJ-PNV-K ETA BILDU-K AURKEZTUTAKO MOZIOA, KATALUNIAKO PARLAMENTUAK EMAN DUEN EBAZPENA XEDE HARTUTA

- 1. Errespetatzea eta aitortzea Kataluniako Parlamentuak abiatutako prozesu politiko eta demokratikoa, kataluniar herriaren gehiengoaren borondate demokratikoaren adierazpen gisa. Helburua Kataluniako herritarren erabakitze eskubidearen ariketa gauzatzea da, bere etorkizun politiko kolektiboa zehazteko.*

2. *Herriek bere etorkizun politikoa erabakitzeke zilegitasun demokratikoa daukate, muga herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutena izan behar delarik.*



***MOCIÓN CONJUNTA BILDU/EAJ EN RELACIÓN CON LA RESOLUCIÓN DEL
PARLAMENTO DE CATALUÑA***

1. *El respeto y reconocimiento del proceso democrático iniciado por el Parlamento de Cataluña, como expresión de la voluntad mayoritaria del pueblo catalán. El objetivo del mismo es la plasmación del ejercicio del derecho a decidir de los ciudadanos de Cataluña.*
2. *Los pueblos tienen la legitimidad democrática para decidir su futuro futuro, teniendo como límite lo que los ciudadanos expresan y deciden democráticamente.*

Toma la palabra la Sra. Velez y comienza diciendo que nuestro modelo de estado es el más descentralizado del mundo, y dentro de las comunidades, Euskadi es la región de Europa que mayor autogobierno tiene. Sigue diciendo que a pesar de nuestra autonomía lo que algunos pretenden es romper el país y que en Cataluña como en Euskadi se están agitando los sentimientos de unos contra otros. Añade que el discurso de algunos en Cataluña es demagógico, porque aunque puede sonar bien, la realidad es que la ley democrática no es un corsé contra la libertad, sino garantía de igualdad y de seguridad para todos, ya que sin ley no hay democracia y en Cataluña se esta aplicando la ley. Dice que mas allá de eso lo irresponsable es la espiral de tensión en que se ha metido a la sociedad, esa espiral de tensión que ya no es Cataluña contra Madrid como algunos nos quieren hacer ver, sino que es un problema entre Catalanes. Continúa diciendo que esto de que los ciudadanos se tengan que situar en un bando o en otro, y que además sean irreconciliables, no les gusta. Sigue diciendo que el Gobierno de España le ha ofrecido desde el principio al Gobierno de Cataluña, entablar un dialogo fructífero para dar una salida a la demanda de los Catalanes, pero siempre con respeto a la legalidad, porque cumplir la ley es obligación de todos los gobernantes, también de Artur Mas. Comenta que el Presidente del Gobierno ha dicho hoy mismo que se alegra que no se celebre la consulta y que esta dispuesto a hablar de todo y que el dialogo y el entendimiento es lo que tiene que prevalecer frente al enfrentamiento. Sigue diciendo que son muchos los que quieren seguir viviendo juntos y que cuanto mas grandes seamos mejor, porque así tendremos mas influencia en el mundo. Añade que el referéndum que se planteaba no era legal, puesto que la soberanía en España no reside en el parlamento si no en el conjunto del pueblo español. Continúa diciendo que el Presidente Mas y los que viajaban es ese tren sin frenos, han decidido al final no hacer la consulta pero que en cambio, se les ha ocurrido hacer una encuesta de participación ciudadana. Añade que si quiere que los ciudadanos opinen, que convoque elecciones diciendo claramente que es lo que propone y que los Catalanes opinen. Termina diciendo que desea que seamos capaces de construir un proyecto todos juntos.

Lizarraga jaunak hartzen du hitza eta esaten du beraien aldetik ikusten dutena dela, herriak erabaki nahi duela, ez dakiela alde edo kontra, baina herritarrek eskatzen dutena erabakitzeke eskubidea dela. Bukatzen du esaten, Espainiatik eta legea eskudo bezala hartuta, planteatzen dena ez dela dialogoa, justu kontrakoa baizik eta erabakitzeke eskubideak ez duela lege baten atzean egon behar, denona izan behar bait du eta edozein momentutan erabiltzeke modukoa.

Toma la palabra la Sra. Velez y le pregunta al Sr. Lizarraga si lo que le quiere decir es que el derecho a decidir no tiene que estar respaldada por ninguna ley. Dice que el problema es que no lo recoge ninguna ley porque el derecho internacional tampoco lo recoge y que dialogar no significa que el se salga con la suya, si no que es hablar, y que hasta ahora no se ha hablado porque el Presidente de la Generalitat no ha estado a la altura de sus ciudadanos siendo su actitud bochornosa.

Alkorta andreak hartzen du hitza eta Velez andreari esaten dio berriki ikusi dutela prozesu demokratiko bat garatu dela Eskozian, erabat legala eta eredu garria. Galdetzen dio zergatik izan den posible han eta hemen ez eta aipatzen du Cameron-ek lehenengo emaitzak ikusi eta lehen prentsaurrekoan esan zuen aurrengo gauza izan zela, berak nahi izan ez gero, legalki bazeuzkala baliabideak kontsulta atzera botatzeko, baina ez egitea erabaki zuela. Gaineratzen du, beraz, prozesu osoa demokratikoa izan dela eta hor daudela emaitzak.

Lizarraga jaunak hartzen du hitza eta esaten du Nazio Batuen Oinarrizko Giza Eskubideen artean dagoela autodeterminazio eskubidea eta momentu honetan horretara iristen ez direla, kontsulta bat bait da eta ala izanik ez duela inolako eraginik izango. Segitzen du esaten Espainiako Gobernuak horrelako kontsulta sinple baten aurrean edukitzen ari den jarrerak erakusten duela, oinarrizko eskubide horiek ez dituela errespetatzen. Gaineratzen du nahiz eta Espainiar Gobernutik beti esan Konstituzioa dagoela denaren gainetik, beraien ustez badaudela gauzak Konstituzioaren gainetik eta ondorioz kontsultaren alde daudela eta kataluniarrak beraien buruarekin zer egin nahi duten erabakitzeke eskubidea dutela.

Bozkatzera jarrita BILDU-K eta EAJ-PNV-K aurkeztutako mozioa, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko zazpi botorekin (5 BILDU, 2 EAJ-PNV), kontrako bost botorekin (4 PSE-EE-PSOE, 1 PP) eta bi abstentziorekin (2 PCLO), mozioa **ONARTZEN** da.

Sometido a votación la moción presentada por BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con siete votos a favor (5 BILDU, 2 EAJ-PNV), cinco en contra (4 PSE-EE-PSOE, 1 PP), y 2 abstenciones (2 PCLO), **APRUEBA** dicha moción.

**4.- BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA
“LIBURU MAILEGUARENGATIK
LIBURUTEGI PUBLIKOEN ORDAINDU
BEHARREKO KANONA BERTAN
BEHERA UZTEA ESKATZEKO
PROPOSAMENA”.**

**4.- MOCIÓN PRESENTADA POR BILDU
RELATIVA A “PROPUESTA PARA
PEDIR LA SUSPENSIÓN DEL CANÓN A
ABONAR POR LAS BIBLIOTECAS
PÚBLICAS POR EL PRÉSTAMO DE
LIBROS”.**

Arrizabalaga jaunak hartzen du hitza jarraian transkribatzen den mozioa irakutzeko:

MOZIOA

Uda honetan PPK kultura- eta hezkuntza-munduari eraso dio beste behin, eta beraz beste urrats bat aurrera egin du zerbitzu publikoen aurka abian jarri duen gurutzadan.

Joan den abuztuaren 1ean BOEn 624/2014 Errege Dekretua argitaratu zen, uztailearen 18koa, establezimendu publiko jakin batzuetan beren lanak maileguz uzteagatik egileei ordaintzeko eskubidea garatzen duena. Gobernuaren aldebakarreko Dekretu horrek ezin gehiago gutxietsi eta baztertu ditu liburutegietako profesionalen iritzia eta irizpidea, eta ospe handiko zenbait idazle ere haren aurka egiten hasi dira.

Onartutako dekretuaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, liburutegi publikoek kanon bat ordaindu beharko diete egile- edo editore-elkarteei zentro bakoitzean maileguz utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko. Liburutegiek ordaindu beharko dute, beraz, legeen arabera eskaini behar dituzten zerbitzuak eskaintzeagatik, eta horrela liburutegiaren funtza kolokan jarriko da, baita zerbitzu publiko horren biziraupena bera ere.

Egile-eskubideen elkarteek beren gain hartuko dute kanonaren kudeaketa osoa, ordaintzeko betebeharra izapidetuz urtean behin kanona egileei helarazteko. Hau da, diru publikoarekin negozio pribatua sustatuko da.

PROPOSAMENA:

1. *Uztailearen 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeek ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.*

2. *Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea.*

★★★★★★

MOCIÓN

Este verano el PP ha perpetrado un nuevo ataque al mundo de la cultura y la educación y dado un paso más en su cruzada contra los servicios públicos.

El pasado 1 de Agosto, en el BOE se publicó el R.D. 624/2014, de 18 de julio, por el que se desarrolla el derecho de remuneración a los autores por los préstamos de sus obras realizados en determinados establecimientos accesibles al público. Decreto unilateral del gobierno, que ha supuesto el máximo desprecio por la opinión y criterio de las y los profesionales de las bibliotecas que no han sido tenidos en cuenta, y al que reconocidos/as escritores/as se están oponiendo.

El decreto aprobado fija que, a partir del 1 de enero de 2016, y en municipios a partir de 5.000 habitantes, las bibliotecas públicas deberán pagar un canon por libro prestado o por usuario registrado en cada centro a las sociedades de autores o editores. Se obliga a las bibliotecas a pagar por el mero hecho de prestar aquéllos servicios públicos que las leyes les confieren, poniendo así en peligro la propia esencia de la biblioteca y su supervivencia como servicio público.

El canon será gestionado en su totalidad por las entidades de derechos de autor que tramitarán la obligación de remuneración para hacerla llegar anualmente a los autores. Es decir, más negocio privado con el dinero público.

PROPOSICION:

- 1. Rechazar la instauración del canon establecido por el R.D. 624/2014 de 18 de Julio y pedir su supresión por vulnerar las obligaciones que la legislación establece en materia de préstamo de libros y biblioteca.*
- 2. Suspender cualquier pago de dicho canon en las bibliotecas públicas dependientes de las instituciones locales, forales y autonómicas.*

Arrizabalaga jaunak mozioa irakurri ondoren, azalpen batzuk gaineratzen dizkio eta esaten du liburutegi publikoetan, bazkide bakoitzak liburu bat hartzeagatik kanon bat ordaindu beharko diela SGAE-ri eta erabaki horren ondorioak garbiak direla eta instituzio publikoei zuzenean eragingo dietela. Segitzen du esaten neurri honek, liburutegiak dituzten 5000 biztanletik gorako biztanleei eragingo diela eta uste duela Gipuzkoan adibidez, 5000 biztanletik gorako herri denek dituztela liburutegi publikoak. Gaineratzen du ondorioa dela, diru publikoarekin dirutza bat ordaindu beharko dela kanonengatik. Jarrantzen du esaten Espainiako Gobernuak erabaki hau arrazoitzeko esaten duela, 2006. urtetik datorren zuzendaritza Europar bat betearaztea dela bere helburua edo beharra, baina beraien iritzitan eztabaida urrunago kokatu behar dela, hau da, gure gizartean kulturak duen garrantziaz pentsatzeari ekin beharko geniokeela. Liburutegi publikoek gure gizartearen ongizatea mantentzen dutela dio eta jantzitako gizarte bat izaten laguntzen digutela. Baita ere aipatzen du, ezinbestekoak diren funtzioak betetzen dituztela gure gizartean nahiz eta jakin batzuetan, beste zerbitzu publiko batzuen moduan, defizitarioak direla, baina beharrezkoak direla eta indartu

beharrekoak. Segitzen du esaten mota honetako erabakiak hartzen badira, liburutegi publikoen bideragarritasunari trabak eta oztopoak jartzen direla. Bukatzeko esaten du mota horretako neurriek beraientzat ez dutela zentzurik eta ez luketela zentzurik eduki behar, hezkuntza eta kultura agenda politikoen lehen mailan egongo balira, baina berriz ere Espainiako Gobernuak erakutsi duela agenda politikoen azken mailan dituztela gai hauek eta herritarren ongizateari begiratu beharrean gutxi batzuen interes ekonomikoak defendatzen jarraitzen dutela. Bukatzeko esaten du Lasarte-Oriako BILDU taldea honen kontra egonik, mozio hau ekarri dutela eztabaida dadin.

Toma la palabra la Sra. Velez y dice que lo que se publicó el 1 de Agosto de 2014, es un decreto que desarrolla la reforma de la ley de propiedad intelectual que se realizó en el 2007. Sigue diciendo que en el ya se establecía, que las bibliotecas debían pagar a los autores por el préstamo de sus libros a través de las entidades de gestión y daban un plazo de un año para aprobar un decreto que desarrollara el calculo de esos pagos. Añade que el problema es que ese decreto ha llegado con 7 años de retraso, con lo cual “quizá” el PP no tenga la culpa de todo. Continúa diciendo que en esa reforma se establece un canon por usuario, que es el que entra en vigor desde agosto de este año y un pago por obra que entrara en vigor a partir de enero de 2016. Comenta que estamos hablando de 0,2 euros de cada libro que tengan las bibliotecas dispuestos para el préstamo y en el caso del canon por usuario entre 0,004€ y 0,005€. Dice que le parece indecente que se diga que se va pagar un canon con dinero público. Añade que todos estamos a favor de fomentar la cultura, pero que otra cosa es que se atente contra la propiedad intelectual. Termina diciendo que la cuestión no es que el servicio sea deficitario o no, sino que esos autores tienen derecho a que se les pague por su obra.

Alkorta andreak hartzen du hitza eta esaten du bat egiten dutela mozioaren edukiarekin eta hor erabaki nahi denarekin, baina bigarren puntuarekin zalantza bat duela eta Idazkari jaunari galdetzen dio ea zer ondorio dakartzan horrelako erabaki bat hartzeak, hau da, obligazio legal bat ez betetzeak, zeren azken finean bigarren puntu horretan eskatzen dena, legezko obligazioa den ordainketa bertan behera uztea dela, beraz zein ondorio izango lituzken jakingo nahiko lukeela.

Toma la palabra el Sr. Zaballos y dice que desde el Partido Socialista comparten el sentir de la moción pero no comparten el segundo punto, por lo tanto iban a pedir lo mismo, que se pudiera votar por puntos.

(*)Mozioa puntuz puntu bozkatzeko erabakia hartzen da.

Arrizabalaga jaunak hartzen du hitza eta esaten du Alderdi Popularreko ordezkariari erantzunez, mozioaren zentzua ez dela errua zeinena izan den ala ez jakitea, baizik eta beraiek uste dutela horrelako neurri batek kalte egiten diola gizartearen ongizateari. Jarraitzen dio esaten Velez andreari, berak esan duela oso kopuru txikiak direla baina jakin nahiko lukeela Lasarte-Oriako liburutegiak zenbat prestamu egiten dituen urtean eta zenbat bazkide dauzkan eta hori biderkatuz ze kantitate ateratzen den, zeren diru hori Lasarte-Oriako Udalak ordaindu beharko duela diru publikoarekin eta zuzen-zuzenean SGAE-ra joango dela. Ondorioz dio, ez dela egia ez denik diru publikoa, Udal guztietatik eta Foru Aldundietatik aterako den dirua bait da. Gaineratzen du, baita era aipatu duela “derechos de autor”etab. baina gogorarazi nahi du Copyright-a ez dela gaur egun existitzen den marka bakarra eta autore askok ez dutela beren marka Copyright-ean erregistratzen,

ez dutelako beraien lana etorkizunean onura eman behar dien zerbait bezala ulertzen. Bukatzeko esaten du neurri hau aldebakartasunez hartzearen kontrakoak direla eta horretarako jarri dutela mozioa mahai gainean.

Alkate jaunak hartzen du hitza eta planteatzen du bigarren puntuan aldaketa egitea honela geratuko zelarik: *Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera **uzten saiatzea***. Gaineratzen du, hala ere, bi puntuak bozkatuko direla, lehen esan bezala, bakoitza bere aldetik

Velez andreak hartzen du hitza eta galdetzen du ea horrekin Udalak ez ordaintzea den beraien intentzioa.

Alkate jaunak hartzen du hitza eta esaten dio puntuaren aldaketarekin esaten dena dela “saiatzea ez ordaintzen”.

Bozkatzera jarrita BILDU-K aurkeztutako mozioa, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko hamahiru botorekin (5 BILDU, 4 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO) eta kontrako batekin (1 PP), puntua **ONARTZEN** da.

Sometido a votación el primer punto de la moción presentada por BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con trece votos a favor (5 BILDU, 4 PSE-EE-PSOE, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO) y uno en contra (1 PP), **APRUEBA** dicho punto.

Bozkatzera jarrita BILDU-K aurkeztutako mozioa, Lasarte-Oriako Udalbatzarrak, aldeko bederatzi botorekin (5 BILDU, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO) eta bost kontrakorekin (4 PSE-EE-PSOE, 1 PP), puntua **ONARTZEN** da, dagokion aldaketarekin.

Sometido a votación el segundo punto de la moción presentada por BILDU, el Pleno del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, con nueve votos a favor (5 BILDU, 2 EAJ-PNV, 2 PCLO) y cinco en contra (4 PSE-EE-PSOE, 1 PP), **APRUEBA** dicho punto con la modificación correspondiente..

Toma la palabra la Sra. Velez y dice que quiere que conste en acta literalmente, su pregunta y la respuesta que el Sr. Alcalde le ha dado al respecto.

5.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA RELATIVA A “ESPACIO ANTONIO MERCERO”.

5.- UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MOZIOA “ANTONIO MERCERO ESPAZIOA”-RI BURUZKOA.

Toma la palabra el Sr. Zaballos y dice que antes de presentar la moción le gustaría decir que la asociación Ttakun del municipio se ha puesto en contacto con ellos para comunicarles que era intención del Ayuntamiento de Lasarte-Oria cederles dicho espacio. Sigue diciendo que desconocían que el Gobierno Municipal tuviera esa intención y por parte de Ttakun también desconocían cual era el proyecto que querían hacer en esta instalación. Añade que es una muestra mas de la falta de transparencia que tienen y que les gustaría que en temas de tanta importancia como este, el Partido que está en el gobierno contara con las demás formaciones políticas. Continúa diciendo que en las conversaciones que han tenido con Ttakun, su Presidente les ha solicitado que pospusieran esta moción, y dice que así lo van ha hacer. Por lo tanto dice que retiran la moción con la intención de poder reunirse lo antes posible con Ttakun y que les puedan presentar ese proyecto que desconocen. Para terminar le dice a Bildu que cuanto tome o piense tomar decisiones políticas, cuente y hable con el resto de las formaciones políticas.

6.- UDAL KONTUHARTZAILEAK GAUR ARTE BIDERATU DITUEN ERREPAROAK.

6.- REPAROS EMITIDOS HASTA LA FECHA POR EL INTERVENTOR MUNICIPAL.

Se da cuenta de los informes de reparo emitidos por el Sr. Interventor hasta el 30/09/2014:

R18.- Asunto: Abono de la nómina del mes de Julio.

R19.- Asunto: Abono de la nómina del mes de Agosto.

R20.- Asunto: Contratación con carácter interino de Dn. Koldo Salaverria de la Iglesia para cubrir el puesto de profesor de Trompeta y Cámara de la escuela de Música municipal.

R21.- Asunto: Contratación con carácter interino de Dña. Elena Herrador Comas para cubrir el puesto de profesor de Guitarra Clásica, Grupo Instrumental y Grupos de Guitarra.

R22.- Asunto: Contratación con carácter interino de Dña. Garbiñe Arruabarrena Salsamendi para cubrir el puesto de profesor de Piano, Cámara y Coro.

R23.- Asunto: Contratación con carácter interino de Dña. M^a Jose Mugica Liceaga para cubrir el puesto de profesor de Piano, Lenguaje musical y Cámara.

R24.- Asunto: Contratación con carácter temporal a Dña Maddi Zubiaurre Otamendi en el puesto de trabajo de carácter temporal de Profesor/a del Euskaltegi municipal.

R25.- Asunto: Abono de la nómina del mes de Septiembre.

7.- GALDERA ETA ERREGUAK.

7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

► **Por la Sra. Velez, portavoz del partido popular:**

1.- Reparos: Dice que como no se han leído los reparos, quiere comentar, que al final un informe de reparo del Sr. Interventor alerta de que una decisión no se ajusta a la legalidad, pero que a pesar de su alerta el Gobierno Municipal las realiza.. Pregunta al Sr.Alcalde, hasta cuando el equipo de gobierno va a seguir saltándose la ley.

2.- Denuncia por pintadas: Ruega al Sr. Alcalde a dar la orden para que la pintada que esta en la fachada del Ayuntamiento sea borrada cuanto antes, porque es bochornoso que este así.

► **Por el Sr. Zaballos, portavoz del partido socialista:**

1.- Denuncia de Cooperación: Comienza diciendo que faltan siete meses para las elecciones municipales y todavía no tienen noticias de ninguna denuncia, y siguen sin noticias del Sr. Castells. Pregunta si cuesta tanto estudiar un informe de Zubizarreta Consulting y que el Sr. Castells diga si hay o no causa para denunciar en materia de cooperación, aunque el personalmente sabe que no lo hay y sabe que distintos abogados también han visto que no hay ningún motivo para denunciar. Añade que incluso el PNV tiene una denuncia preparada y todavía no la ha registrado en los tribunales y dice que por algo será. Sigue diciendo que le gustaría saber cuando van a tener noticias de dicha denuncia o si van a seguir alargando este tema hasta las próximas elecciones municipales. Dice que a lo mejor no lo presentan porque las posibles irregularidades que cometió el Partido Socialista en materia de cooperación, las están cometiendo ellos ahora diariamente, como por ejemplo las dietas que percibió el Sr. Alcalde en su momento, que se han tratado esta mañana en la Comisión de Euskera y que el Sr. Interventor ya le ha notificado que las percibió irregularmente. Continúa diciéndole al Sr. Alcalde que en el pleno del mes pasado dijo que era el primer interesado en que se realizara la denuncia, pero que ya ha pasado un mes más y no se sabe nada. Dice que para BILDU el tema de la cooperación fue simplemente un tema electoralista desde el principio, para ir en contra del PSE y la prueba está en que llevan tres años y medio gobernando y no han hecho absolutamente nada. Vuelve a reiterar al Sr. Alcalde cuando va a presentar la denuncia, y pregunta si le ha contestado algo el Sr. Castells, si la han dado por descartada, o ahora pretenden sacar una sombra de duda con temas de urbanismo y empezar a tocar diferentes temas del Ayuntamiento para olvidarnos del tema de la cooperación. Añade que ellos no se van a olvidar de ese tema y que mientras el Grupo Socialista esté en el Ayuntamiento seguirán reclamando que se esclarezca ese tema.

2.- Asfaltado: Dice que en los presupuestos del 2014 presentaron una enmienda desde el Partido Socialista para destinar 250.000€ para el asfaltado público. Sigue diciendo que desde BILDU, PNV Y PCLO votaron en contra y les dice que luego posteriormente con el remanente de tesorería

establecieron una partida superior. Añade que no aprueban las enmiendas del PSE porque vienen del PSE y no porque la demanda o la necesidad no exista. Por lo tanto le pregunta a la Sra. Prieto cuando van a hacer el asfaltado público de esas calles.

3.- Subvención tejado parroquia San Pedro: Dice que presentaron una enmienda el PSE y el PNV de unos 30.000€ que iban a ser destinados para subvencionar la obra del tejado de la parroquia de San Pedro. Comenta que no hay noticias de dicha subvención y que la Diputación Foral ya ha entregado la subvención pero que el Ayuntamiento de Lasarte-Oria no la ha ejecutado. Pregunta cuando van a ejecutar dicha partida, para poder pagar las deudas que ahora mismo tiene la iglesia de San Pedro.

4.- Retraso de trabajos: Le dice al Sr. Alcalde que le ha dado orden al Sr. Interventor para que deje todo lo que está haciendo, para dedicarse exclusivamente a informar sobre la Agencia de Desarrollo Comarcal y que eso conlleva entre otras cosas: el retraso de las ordenanzas fiscales, retrasa el sacar de nuevo la parcela de viviendas de VPO de Zabaleta-Berri, retrasa sacar en alquiler los garajes de Okendo, retrasa también sacar en alquiler los pisos que están vacíos y que son propiedad del Ayuntamiento, retrasa sacar en venta los pisos donde antiguamente estaba Secretaría y Euskera y por eso tienen que criticar que dentro de sus prioridades, esté el crear esa propuesta, que desde BILDU hacen de la Agencia de Desarrollo Comarcal, que desde el Partido Socialista no comparten y lo único que hace es retrasar cosas bastante importantes para todos los ciudadanos de este pueblo. Pregunta cuando van a estar las ordenanzas fiscales, cuando van a sacar las parcelas de Zabaleta-Berri, cuando vamos a poder tener los garajes de Okendo en alquiler, cuando se van a sacar los pisos que están vacíos en alquiler, cuando se van a vender los pisos donde estaba anteriormente Secretaría y Euskera. Para terminar dice que ahí se ven cuales son las prioridades de BILDU.

5.- Zona piscícola: Comenta que después del pasado temporal que azotó Euskadi y que ocasionó grandes desperfectos en las vías públicas de diferentes municipios, entre ellos Lasarte-Oria, ha provocado que la zona piscícola de Oria, en el parque de Txitxardin, esté en una lamentable situación. Pregunta si es intención de este Gobierno realizar las obras pertinentes para reparar la zona piscícola.

6.- Obras para reforma del viejo Ayuntamiento: Pregunta cuando se van a realizar las obras del antiguo Ayuntamiento que se contemplaron en el presupuesto, ya que queda poco tiempo para acabar el año y todavía no tienen ninguna noticia de las obras.

(*Jarraian dagokien zinegotziek hitza hartzen dute Velez andreari erantzuteko.

1.- Reparos: Alkate jaunak hartzen du hitza Velez andreari erantzuteko eta esaten du gogoratu behar dela bi motatako erreparoa daudela, batzuek, legez kontrako erabakiak hartzen direnean, erabaki horiek “nulo de pleno derecho” direla eta horrelako erabakirik ez dutela hartu eta beste erreparoa motak direla, adibidez, kontu-hartzailearen ustez gai batzuk beste era batera eraman edo egin daitezkeela uste duenean. Gaineratzen du lehen esan duela zer motatako erreparoa diren Udaletxean

gertatu direnak, nominei eta kontratazioei dagozkienak zehazki. Segitzen du esaten kontratazioari dagozkienak, Musika Eskolako irakasleen kontratazioak edo ordezkapenak egiteko eta Udal Euskaltegiko kontratazioak egiteko direla eta bi aukera daudela kontratazioak egitea edo ez egitea. Kontratazio horiek ez badira egiten, bai Musika Eskola, Euskaltegia eta oro har Udalak ematen dituen zerbitzuak bertan behera edo gutxienez kolokan geratzen direla dio. Jarraitzen du esaten horren aurrean, eta “nulo de pleno derecho” ez direla jakinda, beraien erabakia nabarmena dela, hau da, herritarrek zerbitzu horiek behar dituztela eta zerbitzu horiek mantentzeko ahaleginak egingo dituztela dudarik gabe.

2.- Denuncia por pintadas: Udaletxeko fatxadaz dio kontu zaharra dela eta ez duela agindurik eman pintada hori ez kentzeko.

(*).Jarraian dagokien zinegotziek hitza hartzen dute Zaballos jaunari erantzuteko.

1.- Denuncia de Cooperación: Alkate jaunak hartzen du hitza eta aipatzen du, egia dela pleno guztietan galdetzen diola gai honengatik, baina esaten dio ez daukala oraindik erantzunik nahiz eta horretan diharduten, eta eman beharrezkoak diren pausoak ematen ari direla. Segitzen du esaten ez izateko zalantzarik gai hau ez dela kanpaina iritsi arte luzatuko, baizik eta aurki egingo dela. Dieta irregularrei buruz aipatu dutenaz esaten du, ez duela inongo arazorik goizean Euskara Batzordean eman duen azalpena berriro emateko. Beraz azaltzen du orain dela hilabete batzuk, aste santua baino lehen, Landa-berri Ikastolatik dei bat jaso zuela umeekin eta beraiekin egoteko, urtean zehar egiten duten ekitaldietako bat zelarik, hau da, pertsona ezagun bat joaten da umeekin egon eta nolabait euskararen erabilera umeen artean zabaltzeko. Segitzen du esaten berari idazle moduan deitu ziotela eta bertan egon zela bi haur talderekin. Jarraitzen du esaten bukatzean komentatu ziotela normalean bertara joaten den pertsonari dieta bat ordaintzen zaiola baina berak esan ziela, Alkate moduan, ez zuela ezer kobratuko eta orduan komentatu zutela diru hori beste helburu batzuetarako erabili zitekeela eta pentsatu zutela diru hori liburuak erosteko erabiltzea. Aipatzen du momentu hartan berak ez zekiela gonbidapen hori, Udalak emandako diru-laguntza batekin finantzatuta zegoenik. Esaten du gero, ekainaren 19an, “recibi” bat iritsi zela eta hor bai hor akats larria egin zuela hori sinatzean, zeren hor esaten da berak 250€ jaso dituela eta ez dela horrela. Gaineratzen du sinatutako “recibi” horretan ordainketa zer dela eta egiten den azalpenik ez dela ematen. Ondorioz esaten du, dudarik gabe bere akatsa dela hori sinatzea, eta honen berri izan duela diru-laguntzen kitapena egitean, Kontu-hartzaile jaunak egindako txostenean agertu denean. Esaten du hori jakin bezain laster bere lehenengo erabakia, zegokion batzordean eta ahal zen azkarren azalpenak ematea izan zela eta horixe egin duela gaur goizeko Euskara Batzordean, oraintxe eman dituen azalpenak emanez. Bukatzeko anekdota moduan dio, berak kotxerik ez duela eta lan kontuak direla eta askotan mugitzea eta taxi bat hartzea tokatzen zaiola, eta inoiz ez duela kobratu diru hori, ez baitu inoiz ticketik eskatu eta aurkeztu. Beraz, ez duela ezer ezkutatzeko eta hanka sartze bat soilik izan dela dio.

2.- Asfaltado: Toma la palabra la Sra. Prieto y dice que obedeciendo al procedimiento que estaban siguiendo hasta el momento, el Departamento de Servicios realizó la parte técnica y la Auxiliar Administrativo de Servicios, junto con el Sr. Secretario realizaron la parte administrativa. Sigue diciendo que la parte que tenía que salir desde el Departamento de Servicios, salió en el mes de Junio y que sabe que por la carga de trabajo de Secretaría, los pliegos ya se han revisado, pero no se ha podido asfaltar en los meses que querían, que era en el mes de Agosto. Continúa diciendo que en estos momentos están estudiando la posibilidad de poder agrandar la partida mediante una modificación de créditos, y a pesar de que la parte administrativa ya esta revisada, hay que fijar nuevamente la cantidad y hacer la parte técnica que falta. Termina diciendo que en estos momentos están trabajando en eso y en cuanto estén se pasaran por intervención y se llevaran a su aprobación en cuanto se pueda.

3.- Subvención tejado parroquia San Pedro: Alkate jaunak hartzen du hitza eta esaten du gai honi buruz, egia esan, berak ez dakiela zein den egoera baina ez dagoela inongo arazorik diru-laguntza hori exekutatzeko eta agian Sanchez andreak informazio gehiago izango duela. Sanchez andreak hartzen du hitza eta esaten du diru-laguntza hori berez hirigintzako partidetan jarri zela eta bertako teknikariarekin hitzegiterakoan, hirigintzatik horrelako diru-laguntza zuzenak ez dituztela ematen komentatu ziola, baina dena den komentatu zitzaioela horretan jarduteko. Aipatzen du hala ere, ez duela uste ezer egin zuenik, itxura denez ez bait dago Udaletxean momentu honetan baina beraien aldetik ez dagoela arazorik beste teknikariren batek eraman dezan gai hori.

4.- Retraso de trabajos: Alkate jaunak jarraitzen du hitz egiten eta esaten dio Zaballos jaunari gai zerrenda bat aipatu duela eta bera ados dagoela gai horien garrantziarekin baina kontutan hartuta herrian eta eskualdean enpleguarekin eta egoera ekonomikoarekin dagoen arazoa, beraientzat garrantzitsua dela arazo horri aurre egin ahal izateko tresna batekin kontatzea. Gaineratzen du momentu honetan beraientzat hori lehentasunezko egitasmo bat dela eta kontuan hartu behar dela Gipuzkoan Garapen Agentziarik ez duen eskualde bakarra direla. Jarraitzen du esaten horrek ez duela esan nahi aipatu diren beste egitasmoek garrantzia ez dutenik. Beraz, esaten du berak Kontuhartzaila jaunari Garapen Agentziaren garrantzia transmititu ziola, baina horrek ez duela esan nahi beste zeregin guztiak utzi behar dituenik eta hori dela esan diona, hau da, Garapen Agentziaren espediente lantzeko, baina aldi berean, ordenantzak ere lantzeko eta asmoa biak uztartzea dela.

5.- Zona piscícola: Toma la palabra la Sra. Prieto y dice que en cuanto al estado de la zona del río Oria, quiere comentar que no ha sido debido a los últimos temporales, sino que llevan arrastrando durante mucho tiempo ese problema y desgraciadamente tiene bastante difícil solución, porque en anteriores temporales el agua se ha ido llevando el hormigón que está debajo del paseo. Sigue diciendo que con lo cual es un problema serio y gordo que por supuesto hay que acometer y se esta estudiando la manera de hacerlo. Añade que ella no es técnico y si no les parece mal podrán aclarar todas las dudas que surjan de ese tema en la Comisión de Servicios que se va a convocar la próxima semana y allí la técnico les podrá dar mejores explicaciones.

6.- Obras para reforma del viejo Ayuntamiento: Sanchez andreak hartzen du hitza eta esaten du

egia esan proiektua orain arte geldirik egon dela, jangelako eta kiroldegiko proiektuak bukatzen egon direlako. Segitzen du esaten aurreikusten dutela Udaletxean dagoen pliego mordoarekin ziurrenik ez diela denborarik emango pliegoak ateratzeko eta aurten bukatzeko, saiatuko direla baina zaila ikusten duela aurten egitea. Gaineratzen du beretzat lehentasuna duela momentu honetan Sasoetako bajuaren pliegoak ateratzea, Idazkari jaunaren azken oniritziaren zain bait daude.

Eta, beste aztergairik ez dagoenez gero, goiburuan adierazitako eguneko 19:35 direlarik, lehendakari jaunak amaitutzat eman du batzarraldia, eta haren akta hau jaso da. Ni, idazkariak, akta honen edukiaren fede ematen dut

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 19:35 horas del día indicado en el encabezamiento, el Sr. Presidente da por terminada la sesión, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, el secretario, doy fe.